

XIX. mendeko irudiez osatutako web orria sortu dute

► Ormaiztegiako Zumalakarregi museoaren ekimena da


XIX. mendeko ondare kulturalaren zati bat eskuratzeko ahalbidetzen duen webgunea sortu berri dute. Gainera, garaiko irudien erreproduktzio digitalak maileguan eskatzeko edo lortzeko aukera ere zabaltzen da, bilaketa modu erraz eta zaindu baten bitartez. Euskal Herriari dagozkion gaiak jorratzen dituzten argazkiak topatu daitezke bertan.

GARA

DONOSTIA

“XIX mendeko albuma” kultur webguneak guztira Euskal Herriko gaiak jorratzen dituzten 1.500 irudi ditu eta www.album19mendea.net helbidean ikus daiteke. Irudiok Gipuzkoako Aldundiaren funtsetakoak dira eta bost dokumentu-zentrotan daude: Zumalakarregi museoa, Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia, Gipuzkoako Artxibo Orokorra, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa eta Untzi Museoa. Imanol Agote Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura zuzendaria adierazi zuenez, webgunearen helburua mende horretan «Euskal Herriari buruz ekoiztako ikonografia modu erraz eta arin batean eskuratzeko bidea ematea» da. Ormaiztegin dagoen Zumalakarregi museoaren ekimen berritzailea da.

Gainera, webguneak irudiak maileguan eskatzeko edo lortzeko bidea ematen die. Interes duenak irudien bilaketa egin dezake ondorengo irizpideak erabiliz: egileen, pertsonaien, tokien eta gaien arabera. Modu horretan, webgunean topatu



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Imanol Agote, «XIX mendeko albuma»ren aurkezpenean.

daitezkeen 1.500 irudiek fitxa dute ondorengo datuekin: egilea, grabatzailea, inprimategia, data, tokia, irudiaren neurriak eta bestelakoak. Bestalde, guñeak erakusketa birtualei zuzendutako espazioa du, eta bertan, XIX. mendeko gai zehatzak erakusten dira irudien bitartez. Hasiera emateko, bi erakusketa birtual sortu dituzte: “Gipuzkoa kostatik kostara” eta “Kartografiak”.

“XIX mendeko albuma” 2002an hasitako prozesu luze baten ondorioa da, museo, liburutegi eta artxiboek kezkatzen

dien arazoen inguruan, alegia, eta material ikonografikoa digitalizatzearen inguruan eta haren kontserbazioaren eta zabal-kundearen inguruan lan egiten du.

Webgunean topatu daitezkeen argazki guztiak “Creative Commons” deritzon lizentziapean daude, hau da, libreki erabili ahal dira ikerketa eta erabilera pertsonalerako, betiere jatorria zehazten bada. Halere, modu komertzialean erabili behar bada horietako argazki bat, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena beharko da.